

Merkatuaren dogma eta ondorioak

Azken ekonomia uzkurraldian Grezia, Irlanda, Espainia eta Italiak pairatu zituzten ondorio larrienak, eta burua ezin altxatuz dabilta harrez gero. Esaten ziguten Europar Batasuneko (EB) merkata eratu ahala, ongizatea besterik ez genuela eza-gutuko, baina denbora aurrera doan heinean, oso talde txiki bat profitatzen ari da, %1 ospetsu hori. Bien bitartean, gehiengo zabalarentzat miseria, etxe-gabetzea, langabezia edo soldaten balio galtzea ekarri du; ahaztu gabe jubilazio pentsioak murrizten ari direla edo hezkuntza, osasungintza edo menpekotasunerako gastu publikoak jadanik arras apaldu direla. Hori guztia merkatuak bideratu al du edo erabaki politikoak daude atzean?

Izan ere, egoera larri horretatik irteteko merkatuan ipini nahi digute ardura eta erantzuna, Erdi Aroan jaungoikoaren gain ipintzen zuten bezala. Merkatuak esleipen zuzen eta bideragarria egiten omen du, nahiz auzitan egon merkaturen gaitasun hori.

Kontraesana ez al da defendatzea merkata planifikatutako eremua dela? Nire hipotesiaren arabera, merkata planifikatzen dute enpresa erraldoiek, zeintzuek horniketa kopuruak, merkatu zatia eta prezioak finkatzen dituzten. Bestela begiratu elektrizitate edo erre-gaien merkatuetan zer-nolako eragina dugun kontsumitzaileok. Enpresa hornitzaile urri batzuek finkatuko dituzte prezioak eta kopuruak, erdietsi gura dituzten mozkinen arabera.

Eraikitzaile handiek ere ez dute merkatuaren arabera jarduten. Hauek, trenbide, aireportu, itsas portu edo errepedearen "premia" dagokion gobernuari salduko diote eta honek inbertsio estrategiko bihurtuko du, herritarrok ez dezagun auzitan ipini. Edo agindua EBko Batzordetik etorriko da, eta dagokion gobernuak derrigorrez egin behar



Baleren Bakaikoa Azurmendi

EHU-KO IRAKASLEA

Finean, hiritarrok te(kn)okrazia-politikoaren egitasmoak onetsi besterik ezin dugu egin. Estatuak horrela funtzionatu behar zutela defendatzen zuen neoliberalismoaren sustatzaile nagusiak, Friedrich Hayek ekonomialariak, eta bitartean Hego Ameriketako diktadurei ateak irekitzen laguntzen zien

duela aitortuko du, kontuan hartu gabe herritarren nahiak eta interesak. Finean, herritarrok te(kn)okrazia-politikoaren egitasmoak onetsi besterik ezin dugu egin. Estatuak horrela funtzionatu behar zutela defendatzen zuen neoli-

beralismoaren sustatzaile nagusiak, Friedrich Hayek ekonomialariak, eta bitartean Hego Ameriketako diktadurei ateak irekitzen laguntzen zien.

Finantza erakundearen erreskaterako erabakiak merkatuetatik at hartu ziren. EBk estatu laguntza oro galarazi eta zigortu egiten du, baina erakunde horiei dirua emateko ez zuen eragozpenik jarri eta zenbait estatutako aurrekontuak larriki urritu ditu. Adibidez, Espainiako Estatuan aurrekontuaren ia laurdena mailegu publikoek sortutako zorra kitatzeko erabiltzen ari da.

Halaber, egunero kontsumitzen ditugun ondasunak kontuan hartzen baditugu, aipatu merkatu lehia urruti geratuko zaigu. Azken finean, multinazionalen hornitzaileei prezioa ipintzen diete: Mercedesek hornitzaileei baldintzak ipintzen dizkie, prezioak barne.

Nekazariak lehengaien hornitzaile nagusiak (Monsanto) ipinitako prezioa ordaindu beharko du. Gero, nekazari horrek ekoiztutako elikagaia, normalean, banatzaile handi bati (Carrefour) salduko dio eta honek ezarriko dio prezioa, merkatuko lehia urruti geratuko delarik.

Enpresa publikoen pribatizazioetan ere gardenki ikusten da merkatutik at geratzen direla. Telefonika, Tabacalera edo antzeko enpresa erraldoiak. Pribatizatu zirenean, lagunarteko kapitalak eratu ziren eta urteetan metatutako herritarren ondarea, aitarene batean, esku pribatuen eskuetara pasa zen, hala moduko prezioan.

Egoera honetatik askatzeko, politikak ekonomia aurre hartu behar dio, erabaki politikoak enpresa erraldoiek hartzen baitituzte; baita kultura aldaketa sakona behartu ere, neoliberalismoak ezarri digun kultur menperatzailea gaindituko duena. Bestela, neoliberalismoak agintzen jarraituko du, ekonomia politikaren gainetik egongo baita. ■